**EBAZPENA, Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako zuzendariarena, zeinaren bidez Kriminologiaren Euskadiko Elkargo Profesionala sortzeko aurretiko kontsulta publikoa egiteko baita.**

**RESOLUCIÓN de la Directora de Relaciones con las Administraciones Locales y Registros Administrativos, por la que se somete a consulta pública previa la Creación del Colegio Profesional de Criminología de Euskadi.**

Euskal Autonomia Erkidegoak profesionalen elkargoen eta tituludun lanbideen arloetan dituen eskumenek Autonomia Estatutuaren 10.22 artikuluan dute oinarri. Xedapen horren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoari dagozkio profesionalen elkargoei buruzko eta tituludun lanbideetako jarduerari buruzko eskumen guztiak, Konstituzioaren 36. eta 139. artikuluetan xedatutakoa kaltetu gabe.

Las competencias de la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de colegios profesionales y ejercicio de profesiones tituladas se fundamentan en el artículo 10.22 del Estatuto de Autonomía. En su virtud, se atribuye a la Comunidad Autónoma del País Vasco la competencia exclusiva en materia de colegios profesionales y ejercicio de profesiones tituladas, sin perjuicio de lo dispuesto en los artículos 36 y 139 de la Constitución.

Eskumen hori baliatuta eman zen tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legea (aurrerantzean, “18/1997 Legea”). Lege horren garapena profesionalen elkargoei eta kontseiluei eta Tituludun Lanbideen Erregistroaren araudiari buruzko otsailaren 3ko 21/2004 Dekretuaren bidez gauzatu zen (“21/2004 Dekretua”).

En desarrollo de dicha competencia, se dictó la Ley 18/1997, de 21 de noviembre, de ejercicio de profesiones tituladas y de colegios y consejos profesionales (en adelante, “Ley 18/1997”), que fue desarrollada por el Decreto 21/2004, de 3 de febrero, sobre el Reglamento del Registro de Profesiones Tituladas, los colegios profesionales y los consejos profesionales (en lo sucesivo, “Decreto 21/2004”).

Aipatutako 18/1997 Legearen 29. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, profesionalen elkargo berriak sortuko dira profesional interesdunen behar hainbateko ordezkaritzak, eta behar bezala egiaztatuak, eskatuta.

De conformidad con lo establecido en el artículo 29 de la citada Ley 18/1997, la creación de nuevos colegios profesionales se llevará a cabo a petición suficientemente representativa y debidamente acreditada de las profesionales y los profesionales interesados.

Bestalde, Profesionalen Elkargoei eta Kontseiluei eta Tituludun Lanbideen Erregistroaren Araudiari buruzko otsailaren 3ko 21/2004 Dekretuaren 18. artikuluak profesionalen elkargo berriak sortzeko

Por su parte, el artículo 18 del Decreto 21/2004, de 3 de febrero, sobre el Reglamento del Registro de Profesiones Tituladas, los Colegios Profesionales y los Consejos Profesionales regula el procedimiento para la creación de



Este documento es una representación del original disponible a través del **localizador** y la **sede electrónica** indicados al pie de página.
Dokumentu hau jatorrizkoaren irudikapen bat da, orri-oinean adierazitako **lokalizatzailearen** eta **egoitza elektronikoaren** bidez eskuragarri dagoena.

**LOKALIZATZAILEA / LOCALIZADOR:** J0D0Z-T4KE9-SNBZ
**EGOITZA ELEKTRONIKOA / SEDE ELECTRÓNICA:** https://euskadi.eus/lokalizatzailea / https://euskadi.eus/localizador
**SINATZAILE / FIRMANTE:** MIREN JOSUNE IRABIEN MARIGORTA | 2023/05/03 15:40:37

prozedura arautzen du, eta, zehazki, elkargoa sortzea eskatzen duten profesionalen ordezkaritza egiaztatzeko eskatzaileek aurkeztu beharreko agiriak zehazten ditu.

nuevos Colegios Profesionales, determinando, en concreto, la documentación a presentar por los solicitantes para acreditar la representatividad de los profesionales solicitantes de la creación del colegio.

Hala, 2022ko martxoaren 31n, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren Erregistro Orokorrean sartu zen Colegio Oficial de Criminología de Euskadi-Kriminologiaren Euskadiko Elkargo Ofiziala izeneko elkargo profesionala sortzeko eskaera, Euskal Herriko Kriminologiako Profesionalen eta Ikasleen Elkartea aurkeztua.

Así, el 31 de marzo de 2022 tuvo entrada en el Registro General del Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno solicitud de creación del colegio profesional denominado Colegio Oficial de Criminología de Euskadi-Kriminologiaren Euskadiko Elkargo Ofiziala, presentada por la Asociación de Profesionales y Estudiantes de Criminología del País Vasco.

Nahitaezko agiriak aurkeztu zirela egiaztatuta, 21/2004 Dekretuaren 19. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, elkargo profesionala sortzeko espedientea sail eskudunen esku utzi zen, interes publikoari dagokionez elkargo profesionala sortzeko prozedurarekin jarraitzearen egokitasunari eta komenigarritasunari buruzko balorazio- eta erabaki-txostena egiteko.

Verificada la presentación de la documentación preceptiva, de conformidad con lo señalado en los párrafos 3 y 4 de la presente, según lo previsto en el artículo 19 del Decreto 21/2004, el expediente de creación del colegio profesional fue puesto a disposición de los departamentos competentes por razón de la profesión de que se trata, al objeto de emitir informe de valoración y decisión sobre la oportunidad y conveniencia, en relación con el interés público, de continuar con el procedimiento de creación del Colegio Profesional.

Ildo horretan, 2022ko azaroaren 14an, Segurtasun Saileko Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen Zuzendaritzaren txostena erantsi zitzaion espedienteari. Txosten horretan ez da eragozpenik jartzen elkargo profesionala sortzeko prozedurarekin jarraitzea eragozteko.

En tal sentido, con fecha de 14 de noviembre de 2022 fue aportado al expediente informe de la Dirección de Régimen Jurídico, Servicios y Procesos Electorales del Departamento de Seguridad. En dicho informe no se objeta impedimento alguno que impida la continuación del procedimiento de creación del colegio profesional.

Era berean, 2022ko azaroaren 24an, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren Justizia Zuzendaritzaren txostena erantsi zen. Balorazio positiboa egiten du, elkargo profesionala sortzea lagungarri izan daitekeelako gizarte-gatazkaren azterketari aplikatutako zerbitzu profesionalen kalitatea bermatzeko, kontrol hobea izateko eta jarduera

Igualmente, con fecha de 24 de noviembre de 2022 consta aportado el informe de la Dirección de Justicia del Departamento de Igualdad, Justicia y Políticas Sociales, valorando positivamente la creación del colegio profesional como vehículo para «*contribuir a facilitar una garantía de calidad y un mejor control y una actuación deontológica correcta*

deontologiko egokia izateko, bai eta kriminologoek lanbide-kolektibo gisa dituzten eskubideak hobeto defendatzeko eta kontsumitzaileen eta erabiltzaileen interesak babesteko ere, elkargokideek ematen dituzten zerbitzuei dagokienez. Honekin batera doa kopia bat, jakinaren gainean egoteko.

*en la prestación de servicios profesionales aplicados al estudio del fenómeno de la conflictividad social, además de procurar a criminólogos y criminólogas una mejor defensa de sus derechos como colectivo profesional y permitir la protección de los intereses de los consumidores y usuarios respecto de los servicios prestados por los colegiados y colegiadas*».

Azkenik, 2022ko abenduaren 21ean, Lehiaren Euskal Kontseiluak, elkargoaren sorrerari eta haren estatutuei buruzko txostena eman zuen. Horri dagokionez, LEKek adierazi zuen «*elkargoaren egitura eta eskatzailearena ez direla oso desberdinak, eta, beraz, elkargo profesional berria sortzeak ez lukeela inolako gehikuntzarik ekarriko interes publikoaren alde. Halaber, elkargo berria sortzea ere ez litzateke proportzionala izango, elkargoa proposatu duen elkartearen bidez era eta modu berean gauza baitaiteke interes profesional berberak defendatzea*».

Por último, el 21 de diciembre de 2022, el Consejo Vasco de la Competencia, emitió informe sobre la creación del colegio y sus estatutos. Al respecto, el CVC señaló que «*la estructura colegial pretendida, no difiere sustancialmente de la de una entidad asociativa, como la solicitante, por lo que la creación del nuevo Colegio Profesional no llevaría añadido alguno a favor del interés público. Además, la creación del nuevo Colegio tampoco resultaría proporcional dado que a través de la asociación proponente del Colegio se puede llevar a cabo de la misma forma y manera la defensa de idénticos intereses profesionales*».

Hala ere, estatutuak hobetzeko gomendioak egin zituen, zeinak aintzat hartu zituen eskatzaileak, arau-proiektuaren ibilbidea ahalbidetuz modu horretan.

No obstante, hizo recomendaciones de mejora de los estatutos, que fueron tenidas en cuenta por la solicitante, posibilitando de este modo el recorrido del proyecto normativo.

Aurreko guztiaren ondorioz, Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzak ordezkagarritasuna egiaztatutzat jotzen du elkargo profesionala sortzeko arau-proiektua izapidetu aurreko urrats gisa.

Como consecuencia de todo lo anterior, la Dirección de Relaciones con las Administraciones Locales y Registros Administrativos cree acreditada la representatividad como paso previo a la tramitación del proyecto de norma de creación del colegio profesional.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen (aurrerantzean, “6/2022 Legea”) 11. artikuluak herritarrei zuzendutako aldez aurretiko kontsulta arautzen du. Izapide hori xedapen orokorrak egiteko prestaketa-fasean sartzen da.

El artículo 11 de la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General (en adelante, “Ley 6/2022”) regula la consulta previa a la ciudadanía, que se subsume en la fase de preparación de disposiciones de carácter general.

Artikulu horren bigarren atalean aipatzen den bezala, herritarrekin interakzioan aritzeko izapide bat da, honela egin behar dena: xedapenaren hartzaile izan daitezkeen pertsona guztiek aukera izan behar dute beren iritzia emateko, behar adinako epe batean, inoiz ez hamabost egun baino gutxiago, eta testu juridiko jakin bat onartu aurretik.

Como refiere el apartado dos del citado artículo, se trata de un trámite de interacción con la ciudadanía que ha de realizarse de la siguiente manera: todas las personas potenciales destinatarias de la disposición deben tener la posibilidad de emitir su opinión, durante un plazo suficiente, nunca inferior a quince días, y con carácter previo a la aprobación de un determinado texto jurídico.

Hala, 6/2022 Legearen 11. artikuluaren hirugarren atalak ezartzen duenaren arabera, izapidea sustatzen duen zuzendaritza-organoak aurretiazko kontsulta egingo du, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan jarrita, jarraian aipatzen diren alderdiekin lotutako informazioa iragarriko da: araua onestearen premia eta egokitasuna, arauaren xedeak, ekimen horrekin konpondu nahi diren arazoak eta izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak; eta herritarrei gonbidapena egingo zaie iragarritako informazioari buruzko iritzia eman dezaten.

Así, el apartado tercero del artículo 11 de la Ley 6/2022 establece que el órgano directivo promotor del trámite realizará la consulta previa mediante su exposición en el tablón de anuncios de la sede electrónica de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi, invitando expresamente a la ciudadanía a pronunciarse acerca de la siguiente información: la necesidad y oportunidad de aprobar la norma, sus objetivos, los problemas que se pretenden solucionar y las posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias

Izapide horrek parte-hartzearen printzipioaren eskakizunei erantzuten die –6/2022 Legearen 4 i) artikulua–. Printzipio horren arabera “herritarrei aktiboki entzuteko eta haiekin elkarlanean aritzeko neurriak ezarriko dira, araua onartzeko prozeduran parte-hartzea bermatzearren, gobernantza kolaboratiboan oinarriturik. (…)”.

La evacuación de dicho trámite se enmarca dentro de las exigencias del principio de participación –artículo 4 i) de la Ley 6/2022–, en virtud del cual “se establecerán medidas de escucha activa y colaboración ciudadana para garantizar su participación en el procedimiento de aprobación de normas, basadas en la gobernanza colaborativa (…)”.

Hain zuzen ere, ebazpen honen iragarkia Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren egoitza elektronikoan jarrita, bideratzen da aldez aurretiko kontsultaren izapidea.

Precisamente, mediante anuncio de esta resolución en la sede electrónica de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco, se pretende evacuar el trámite de consulta previa a la ciudadanía.

Horretarako, hamabost (15) egun balioduneko epea ezartzen da herritarrek egokitzat jotzen dituzten iradokizun edota ekarpenak egin ditzaten.

A tal efecto, se establece un plazo de quince (15) días hábiles para que la ciudadanía realice cuantas sugerencias o aportaciones tenga por conveniente.

Hori horrela, eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuak ematen dizkidan eskumenak baliatuz, honako hau

En consideración a lo anterior, y en virtud de las competencias atribuidas por el Decreto 8/2021, de 19 de enero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno,

**EBATZI DUT:**

**RESUELVO:**

**Artikulu bakarra**.- Euskadiko Kriminologiaren Elkargo Profesionalaren sorrerari buruzko kontsulta publikoa egitea, hura arautzen duen testu juridikoa idatzi aurretik.

**Artículo único**.- Someter a trámite de consulta pública, la creación del Colegio Profesional de Criminología de Euskadi, con carácter previo a la redacción del texto jurídico normativo que regule la misma.

Xedapenaren hartzaile izan daitezkeen pertsona guztiek, hala baderitzote, iritzia eman ahal izango dute ebazpen honen eranskinean jasotako alderdien gainean. Horretarako, hamabost (15) egun balioduneko epea izango dute, ebazpen hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren egoitza elektronikoan argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Todas las personas potenciales destinatarias de la disposición que así lo consideren podrán emitir su opinión en relación con los aspectos expuestos en el anexo de esta resolución. Dispondrán para ello de un plazo de quince (15) días hábiles, contados desde el día siguiente al de la publicación de la presente resolución en la sede electrónica de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko maiatzaren 3a.
Vitoria-Gasteiz, 3 de mayo de 2023.

Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako zuzendaria,
Directora de Relaciones con las Administraciones Locales y Registros Administrativos,

Miren Josune Irabien Marigorta.

## ERANSKINA

**1.- Arau-proposamenaren bitartez konpondu asmo diren arazoak.**

Eskaera egin duen Euskal Herriko Profesionalen eta Ikasleen Kriminologia Elkartearen arabera, kriminologoen lanbide-profilaren aitorpen formalik eza antzeman da, bai enpresa pribatuan, bai sektore publikoan, eta funtzio publikoan sartzeko desberdintasun-kasuak hauteman dira araututako beste titulazio batzuen aldean. Horregatik, uste dute elkargoa sortzeak erraztu egingo lukeela sortzen ari diren eremu profesional kriminologikoak sortzeko oztopoak kentzea.

**2.- Araua onestearen premia eta egokitasuna.**

Aurretiazko kontsulta publikoaren xede den arau-proposamenak behar-printzipioari men egiten dio, zeina 6/2022 Legearen 4. artikuluaren a) atalean hala baitago definituta: “arau-ekimena interes orokorreko arrazoi batek justifikatu behar du (…)”.

Egia esan, elkargo profesional bat sortzeko, xedapen orokor bat onartu behar da nahitaez, azaroaren 21eko 18/1997 Legearen 29. artikuluan ezarritakoaren arabera. Horrela, ex novo eratutako zuzenbide publikoko korporazioak lanbidearen interesak defendatzeko ahalak eskuratzen ditu, elkargoko kide izatea nahitaezkoa denean lanbidean jarduteko, baina elkargokideen interesak defendatzekoak eskuratuko ditu soilik, lanbidean jarduteko elkargoko kide izatea ezinbesteko baldintza ez denean.

Ondorioz, nahiz eta egia den elkargoa sortzeko araua egitea beharrezkoa dela,

## ANEXO

**1.- Problemas que se pretenden solucionar con la propuesta normativa.**

Según la asociación solicitante, Asociación de Profesionales y Estudiantes de Criminología del País Vasco, se ha percibido una falta de reconocimiento formal del perfil profesional de las criminólogas y criminólogos, tanto en la empresa privada como en el sector público, habiendo detectado casos de desigualdad en el acceso a la función pública frente a otras titulaciones regladas. Por ello, consideran que la creación del colegio facilitaría la supresión de las barreras para crear ámbitos profesionales emergentes, propiamente criminológicos.

**2.- Necesidad y oportunidad de aprobar la norma.**

La propuesta normativa que se somete a consulta pública previa obedece al principio de necesidad, conforme este es definido en el artículo 4, apartado a), de la Ley 6/2022: “la iniciativa normativa debe estar justificada por una razón de interés general (…)”.

Ciertamente, la creación de un colegio profesional requiere, necesariamente, de la aprobación de una disposición de carácter general, de conformidad con lo establecido en el artículo 29 de la ley 18/1997, de 21 de noviembre. De este modo, la corporación de derecho público constituida *ex novo* adquiere potestades en defensa de los intereses de la profesión cuando su colegiación es obligatoria para el ejercicio de la misma, pero únicamente respecto de sus personas colegiadas, cuando la colegiación no resulta un requisito indispensable para ello.

Consecuentemente, si bien es cierto que para crear el colegio la elaboración de la norma

haren egokitasunari buruzko zalantzak sor daitezke, sortzen den erakundea ez baita nabarmen aldatuko erakunde eskatzailearen beraren aldean.

deviene necesaria, pueden plantearse dudas en torno a su oportunidad, toda vez que la entidad que se cree no diferirá sustancialmente respecto de la propia entidad solicitante.

Informazio gisa, aipatzekoa da beste autonomia-erkidego batzuetan kriminologiako profesionalen elkargoak daudela: Valentziako Erkidegoko Kriminologoen Elkargo Ofiziala, uztailaren 4ko 2/2013 Legearen bidez sortua; Asturiasko Kriminologoen Elkargo Profesionala, Asturiasko Printzerriko martxoaren 13ko 6/2015 Legearen bidez sortua; Kataluniako Kriminologoen Elkargoa, maiatzaren 23ko 50/2017 Dekretuaren bidez sortua; Madrilgo Erkidegoko Kriminologoen Elkargo Profesionala, apirilaren 27ko 5/2017 Legearen bidez sortua; eta Murtziako Eskualdeko Kriminologiaren Elkargo Profesionala, maiatzaren 28ko 5/2018 Legearen bidez sortua.

A título informativo es dable mencionar la existencia de colegios de profesionales de la criminología en otras comunidades autónomas: el Colegio Oficial de personas Criminólogas de la Comunitat Valenciana, creado por Ley 2/2013, de 4 de julio; el Colegio Profesional de Criminólogos de Asturias, creado mediante Ley del Principado de Asturias 6/2015, de 13 de marzo; el Colegio de Criminólogos de Cataluña, creado por Decreto 50/2017, de 23 de mayo; el Colegio Profesional de Criminólogos de la Comunidad de Madrid, creado mediante Ley 5/2017, de 27 de abril; y el Colegio Profesional de Criminología de la Región de Murcia, creado por Ley 5/2018, de 28 de mayo.

**3.- Arau-proposamenaren xedeak.**

**3.- Objetivos de la propuesta normativa.**

Lehenik eta behin, proposamenaren helburua da aurkeztutako eskaera ebaztea, 18/1997 Legearen 29. artikuluan jasotako aurreikuspena betez.

En primer lugar, el objetivo de la propuesta es resolver la solicitud presentada en observancia de la previsión contenida en el artículo 29 de la Ley 18/1997.

Gainera, Euskadin jarduten duten kriminologiako profesionalei beren interesak eta ordezkaritza defendatzeko tresna bat eman nahi zaie, betiere, elkargoko kide izatea borondatezkoa dela kontuan hartuta.

Además, se pretende dotar a los profesionales de la criminología ejercientes en Euskadi de un instrumento que defienda sus intereses y su representación, teniendo en cuenta, en todo caso, el carácter voluntario de la colegiación.

Azkenik, elkargo profesional bat sortu nahi izateak lagundu egingo luke kontsumitzaileen eta erabiltzaileen interesak babesten, elkargokideek ematen dituzten zerbitzuei dagokienez.

Finalmente, la pretendida creación de colegio profesional, contribuiría a la protección de los intereses de los consumidores y usuarios respecto de los servicios prestados por las colegiadas y los colegiados.

**4.- Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak.**

**4.- Posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias.**

Ebazpenean aipatutako legezko eta arauzko manuak kontuan hartuta, eta proposatutako irtenbide arautzailearen justifikazioa kontuan hartuta, ezinbestekoa da xedapen orokor bat egitea elkargo profesional interesduna sortzeko. Aukera ez-erregulatzaileak, formalki, ezberdintasun bat ekarriko luke zuzenbide autonomiko konparatuan, baina, praktikan, aurreratu den bezala, erakunde eskatzaileak ez lituzke eskuratuko elkarte profesional gisa dituen ahalmenez bestelakoak; izan ere, elkargo profesionalen berezko prerrogatibak lanbidean jarduteko nahitaez elkargoko kide egin behar dutenentzat gordetzen dira.

En atención a los preceptos legales y reglamentarios citados en la resolución, y en consideración a la justificación de la solución regulatoria propuesta, es imprescindible elaborar una disposición de carácter general para crear el colegio profesional interesado. La alternativa no regulatoria supondría formalmente una diferencia en derecho autonómico comparado, pero, en la práctica, tal y como se ha adelantado, la entidad solicitante no adquiría facultades distintas a las que ya ostenta como asociación profesional, dado que las prerrogativas propias de los colegios profesionales se reservan a aquellos cuya colegiación es obligatoria para la el ejercicio de la profesión.